



2017-18 IKASTURTEKO GOIBURUA

Haur Hezkuntza

“Bihotzaren ordua da”

Hirugarren ekintza: Bakea nire bihotzean hasten da

Bakearen astean eramango dugu ekintza aurrea, proposatzen ditugun otoitzekin batera.

1go saioa: “Todos los niños del mundo” abestia entzuten dugu edo Betor Bakea (Maite Losada). Bihotzez gauzak eginez gero bakean biziko gara.

Betor Bakea: https://youtu.be/z70diqO3D_I

Todos los niños del mundo: <https://youtu.be/WP-KbuSYzA>

2en saioa: Beheko aldean agertzen den marrazkia aurkezten diegu umeei, Bakearen kontzeptua azaltzen. Honekin bakea bakoitzaren bihotzean hasi behar dela azaltzen diegu, bide hau jarraitzeko egunero landu behar dela kontatuz. **“BAKEA BIHOTZEAN HASTEN DA!”** esaldia Bakearen asteko goiburu bezala erabiliko dugu. Marrazkia margotzen dugu:



3en saioa: HH-ko gela guztien artean sortutako proiektu batean datza, ume txikietatik handienetara parte hartuko dute. Gela bakoitzeko ume bakoitzari txuria dagoen bihotz bat banatuko zaie, eta gela bakoitzak lehenagotik adostutako kolorearekin margotu beharko du, esate baterako: urte batekoek urdin argiarekin, 2 urtekoek morearekin, 3 urtekoek



Sagrado Corazón Mundaiz



berdearekin, 4 urte A-koek urdin ilunarekin, 4 urte B-koek laranja, 5 urte A-koek hori eta 5 urte B-koek gorri margotu beharko dute. Behin bihotz guztiak margotuta, adina kontuan izanda, umeek bihotzak moztuko dituzte edo gela bakoitzeko andereñoek lagunduko diete. Bukatzeko, lehenagotik sortutako hormairudi batean kolatuko dira bihotz guztiak, bihotzez sortutako ortzadar bat sortuz. Umeei nahiz eta bakoitza bakean biziz, denok batera bakean bultzatzen denean benetazkoa den bakea lortzen dela azaltzen zaie; ez dela bakarkako lana, taldekoa baizik. Hormairudiaren goiko aldean aurreko ekintzan landutako esaldia idatzi daiteke: **“BAKEA BIHOTZEAN HASTEN DA!”** Beheko aldean klasean margotutako usoaren marrazki bat kolatu daiteke. Beheko aldean nola geldituko denaren adibide bat atxikitzen da, gure kasuan ortzadarra bihotzez soilik eginda egongo litzateke.

